

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 1,6 milioi euroekin finantzatu ditu Abartzuza, Iza eta Iraizotzeko (Ultzama) ibilbideak

Hiru azpiegitura horietan 2,15 milioi euro inguru inbertituko da

Lunes, 06 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Herri Lanak Garraioak eta Komunikazio Departamentuaren eta Abartzuza, Iza eta Ultzamako udalen arteko hiru lankidetzahitzarmen onartu ditu, Abartzuza, Iza eta Iraizotzeko ibilbideetan hobekuntza-lanak egiteko.



Iraizotzeko aireko ikuspegia (Ultzama)

Zehazki, Foru Gobernuak jarduera horiek 1.645.855 euroekin finantzatu ditu.

Hitzarmen horietan azaltzen denez, Herri Lanen Departamentuak hiru lanen proiektuaren idazketa, zuzendaritza eta egikaritzeko kontzeptuetan finantzatu ditu, 810.317 euro, guztira; kopuru horretatik, 474.315 euro Abartzuzako ibilbiderako izango da, 171.768 euro Izakorako eta gainerako 164.233 euroak, Iraizotzeko ibilbiderako.

Gainera, Foru Gobernuak beste 835.538 euro emango dituela aurreikusita dago hornidura eta saneamenduko sareak berritzeko, bai eta zolaketarako, espaloietarako eta zerbitzuetarako ere, 2009-2012 Tokiko Inbertsioen Planean azaltzen denaren arabera.

Bestalde, udal bakoitza obrak gauzatzeko beharrezkoak diren ondasun nahiz eskubideak bereganatzeaz arduratuko da, hala badagokio, eta hortik sortutako gastuen kargu egingo da; horrekin batera, lanek eragindako zerbitzuak berriz ezartzeaz arduratuko da. Udalak, halaber, zuzendaritza teknikoaz (Kontserbazio Zerbitzuaren ikuskaritzapean) eta segurtasun nahiz osasunezko alorreko koordinazio-betebeharrez arduratuko dira

Guztira, hiru azpiegitura horiek gauzatu ahal izateko azken inbertsioa 2.148.236 eurokoa da.

Abartzuzako ibilbideko obren deskribapena

Izako ibilbideko hobekuntza-proiektuak, NA-4120 errepidean dagoena (Gulina-Arostegi), 609.033 euroko lizitazioko oinarrizko aurrekontua du, eta kopuru horretatik Herri Lanetarako Departamentuak

171.768 euro finantzatu du. Ibilbidea 200 metro luzekoa eta 3,3 eta 5 metro arteko zabalera, luzera guztian dauden etxebizitzak hurbiltasuna dela-eta. Lanak, batez ere, zolaketarako eta galtzadako bidezorua berritzeko egingo dira, euri-uren sareak berritzeko eta elektrizitate, telefonia eta argiztapen publikoko kanalizazioetarako. Fatxaden alboan ere espaloiak egingo dira. Galtzadako zolaketa aglomeratuzkoa da eta espaloiak aurrefabrikatutako galtzada-harrizkoa.

Kasu honetan, Tokiko Administrazioaren Departamentuak 534.000 euro inbertituko du gutxienez, eta kopuru horretatik 202.000 euro hornidura eta saneamenduko sareak berritzeko erabiliko dira; gainerako 332.000 euro, berriz, espaloi eta zerbitzu etarako.

Izako ibilbideko lanen deskribapena

El proyecto de mejora de la travesía de Cía (Iza), situada en la carretera NA-4120 (Gulina-Aróstegui), cuenta con un presupuesto base de licitación de 609.033 euros, de los que el Departamento de Obras Públicas financia 171.768. La travesía tiene una longitud de 200 m y una anchura que varía entre 3,3 y 5 m, debido a la proximidad de las viviendas en toda su longitud. Las obras van a consistir principalmente en la pavimentación y afirmado de la calzada, la renovación de las redes de pluviales, y las canalizaciones de electricidad, telefonía y alumbrado público. Así mismo, se van a realizar aceras junto a las fachadas. El pavimento de la calzada será de aglomerado y las aceras de adoquín prefabricado.

En este caso, la aportación del Departamento de Administración Local será de al menos 534.000 euros, de los que 202.000 euros serán para renovación de redes de abastecimiento y saneamiento, y los 332.000 euros restantes, para aceras y servicios.

Iraizotzeko (Ultzama) ibilbideko lanen deskribapena

Iraizotzeko ibilbidea 370 metro luzekoa da, eta NA-4230 Lizaso-Arraitzen kokatuta dago, Ultzamako ibarrean. 298.082 euroko lizitazio oinarriko aurrekontu batekin, hobekuntza-lanak ibilbidearen zolaketa eta haren urbanizazioa berritzeko dira, eta oinezkoen joan-etorria ibilgailuen trafikoarekin bateragarri izaten utziko dute; horretarako, ezinbestekoa da oinezkoentzat babestutako, beraientzat bakarrik diren espazioak eraikitzea. Jarduera hiri-izaera handikoa da: espaloiak, euri-uren sarea eta argiztapen-sarea. Proiektuak dagoen galtzada 6 metrora arte zabaltzea jasotzen du eta ezkerrean 2 metro zabaleko espaloi bat egitea. Herri Lanetarako Departamentuak 164.233 euro inbertituko du, eta Tokiko Administrazio Departamentuak, berriz, 110.365 euro.